

Juan Garcia Garmendia

(Legazpi 1955)



OARSO urtekariaren irakurleari ez zaizkio arrotz izen-abizen edo izen-deitura horiek. Lehengo urtekoan bertan hortxe agertzen ziren, Errenteriako Xenpelar ahotan eta "filme baterako" ideiak buruan.

Baina iazko horretan, orrialdearen barrenenean ageri dira. Aurten goienara ekarri ditugu, bistagoan jarri, erakusgarritan bezala. Ez izen-abizen horiek aparteko edertasunik dutelako. Ez dute beste munduko dizdirarik. Edozein da hemen Garzia, eta edozein Garmendia, eta zer esanik ez Juan, nahiz orain bakantzen hasia den zertxobait.

Baina izen horiek banaka eta bakarka nonahi aurki badaitezke ere, hirurek batera izendatzen duten jauna ez da edozein, eta horregatik dakargu OARSO honen orrialdetara.

Eta edozein ez delako publikatu digu oraindik orain liburu mardul eta jantzi eta bete bat, euskararen erabilera egokiari dagozkion zenbait puntu aztertuz eta argituz. "JOSKERA LANTEGI" du izena, eta gero berak esango digu zertaz diharduen.

Egia esan ez zegoen liburu horren zai egon beharrik gure Juan nonahiko orrialdetara ekartzeko. Bazuen lehendik ere irakasle eta itzultzaile eta idazle den honek edozein lekutan lotsarik gabe agertzeko meriturik eta merezimendurik. OARSO honen irakurleak badakike zein duten guraso AKASO, ITZALEN ITZAL, FADOA COIMBRAN, eta TXIRRITAREN BARATZEA NORTEKO TRENBIDETIK liburuek. Eta beste hainbat artikuluk eta abarrek!

Beraz ez geneukan aitzakia bila ibili beharrik legazpiar hau orrialde hauetara ekartzeko. Hala ere laugarren ume haundi hau - zer izen duen galdetu diogunean, "JOSKERA LANTEGI" duela esan digu - besoetan duela ikusi dugunean, tertuli berezi bat egin nahi izan dugu aitarekin. Ia zer dioen Juan Garcia Garmendia irakasle eta idazleak.

Aranalde: Kabira haundiko irakaslea eta idazlea dela Juan Garcia esatea, ondo esana al legoke?

Garcia: Ez -dio, komentzimendu haundirik gabe, nik uste -. Gramatikalari fama puska bat bada hor, baina... (Gureztat, kabira izatea, norbera dabilen lekuetan eta sailetan itzala eta eragina izatea da; eta Juanek hori baduela ez dago ukatzerik)

A.: Eta asko kabitzen zaiona?

G: Bai, hori bai -dio, zinez eta biribilki - Esanahia garbi dago. Kabitu gehiegi behar bada. (Ehun bat kiloren hornidurak gehiegi itsusten ez duen bihankako puska ere badugu legazpiar erdi-gastronomo mokofin hau).

A: Eta esango banu, jakite asko eta dogmatismo gutxi duen norbait dugula Juan, zer?

G: Hala nahiko nuke -dio-, batez ere bigarren horretan. Gero eta zer-ikasi gehiago nabaritzen da. Zerbait ikasteak, ikasteke dauzkagun sailak ikusterazi besterik ez du egiten.

A: Eta gizon -gizonagora etorritz, ezkerrekoa al du bere joera gure legazpiarrak?

G: (Irripar-puntu bat dariola) Inork baleki honez gero zer den ezkerria eta zer den eskubia... Garai batean, oraindik politika edo horretan sinesten nuenean, alde horretara jotzen nuen.

Behar bada, nere izaera kritikoa da horren kausante.

A: Gainera, PATRICIO ECHEVERRIA .S.A. enpresako langile baten biloba izanda...

G: Gainera! Bai, aita ferrobiarioa dut eta aitona fabrika sonatu horretako langile nuen.

Horrenbestez, liburura egiten dugu jauzi.

A: Ez dut dena irakurri -esaten diot. (Bezpera - bezperan erosi nuen, berak ez baitzidan opari eman, demontre horrek; eta 40ren orrialde neuzkan bakarrik irakurririk, liburuak dituen 600 juxtuetatik).

G: Ez diot inori opa osoa irakurtzerik -botatzen du brasta. (Berak benetan bezala esaten du, baina guk badakigu ez dela egia).

A: Nere irudipena bakarrik ote da, Juan, literaturgile ere bazarela liburu honetan?

G: Ni ez naiz egokiena hori esateko -dio - baina, tira... Egia da, pasarte batzutan, gaia arindu beharrez eta, horrelako zarbait badela; eta liburu batek norbera isladatzen duela. Gainera hizkuntza gizartearen islada da, eta horko joera batzuk eta komentatu behar ziren, eta orduan ba...

Bestetik akademikoegia ez egiten ere saiatu naiz terminologia aldetik-eta. Saiakera estilo pixka batekin egin dut. Gero, zenbait jende bada errezerario moduko zerbaiten bila ibiltzen dena, eta hari esan behar zitzaion errezerarik ez dagoela. Hala ere kontu oso zehatzak badaude, jakina.

A: Esaldi labur batzuetan esan al daiteke, Juan, JOSKERA LANTEGI azterketaren bitartez zertan lagundu nahi diozun euskara erabiltzen duenari?

G: Alde batetik, ondorio zintzoak atera behar direla adierazi nahi nuke. Alboko erdarak eta gure euskara oso desberdinak direla-eta, oso harro ibili ohi gara, eta beti aipatzen dugu hori; baina gero jende askok, praktikan, mekanikoki egin nahi luke erdaratik euskararako aldaketa, hitzez hitz, hitzen trukaketa hutsarekin, egiazko itzulpen batek eskatzen dituen azpiko mekanismoak ezagutu gabe, eta horrek ez du balio.

Ez da berria, Altube eta abarren ahalegina ere hori izan zen. Hestutxo ibili zirela? Ez dakit. Orduko giroa ezagutu beharko litzateke. Itzultzaileon espe-rientziatik ateratako ondorioak dira.


Bestetik, euskara gaur esparru askotara ari denez zabaltzen, joskera standard bat lortzeko ahalegina izan nahi luke liburuak. Eta hori, ez nere erretetik erabiliz bezala, tradizioz datorkigunetik hartuta baizik. Eta bide batez, euskara dejeneratzen diguten zenbait joera ere salatzen da.

A: Gatozen orain euskarazko literaturara. Gaur sorten den horren barnean zer moduz senditzen da Juan idazlea? Aurrera al goaz?

G: Bai. Nik uste aurrera egin dela nabarmen. Eta bereziki literaturan. Jauzi ikaragarria zegoen gurearen eta kanpokoaren artean, eta bi hegi horien arteko zubia egiteko asmoa garbia da, eta etekinak ere bai nik uste. Eta nik esan behar banu, itzultzaileari zor zaio batez ere zubigintza hori: norbere hizkuntzara pasatzea beste hizkuntzetan dagoen hori. Hori egiten duen guztia da itzultzaile. Eta hori, jatorria inoiz baino gehiago zainduz egiten dela uste dut.

A: Ahalegin horretan ari direnen izenik emango al lidake Juanek?

G: Bi. Nik uste denak ari direla; baina hor daude beren sorkuntzako lanak beste hizkuntzutan ere ateratzen dituztenak: Andu, Atxaga, Saizarbitoria... Andurenak, gainera, itzulpe-itzulpenak dira,



Marrakia: Antton Olariaga.

ez dira egokitzen. Gaur gure literaturarik hobere-
nak ez dut uste inbiria haundirik dionik kanpoko
hoberenari.

*A: Ni horretan. Eta irakurlegoa, Juan? Zenbait
jende ez al da konformatzen etxetik dakien eus-
kararekin eta horren arabera juzgatzen literatura
berria, guztia baleki bezala?*

G: Bai, bai. Nik uste hori dela. Bi kontu dira hor.
Bat da euskarari irauraztea, betiko kontua.
Horretarako lagunarteko euskara aski da, etxe-
koa. Beste kontua da euskara lantzea. Lehenengo-
ari ez dio mesederik egiten bigarrena ez egiteak.
Eta bataren eta bestearen alde egiten den ahale-
gin horretan desoreka handia ikusten da. Eta
bigarren hori gabe, gaurko egunean, hizkuntza
batek bere etorkizuna ez dauka batere garbi. Kul-
tur-hizkuntza eginez joan behar dugu aurrera.

A: Eta kritika?

G: Irakurlearen eta idazlearen arteko lokera hori
falta da. Ez dago kritikarik. Ahoz-aho egiten da,
baina besterik ez. Literaturaren zirkuitoa itxi
gabe dago. Gehienez ere erreseinak egiten dira
bakarrik. Kritikarik ez.

*A: Aje kontuak hor dabilta, Juan: prantzi-euskara
omen dela hangoa eta espainol-euskara hemen-
goa eta bat eta beste.*

G: Bai. Beti egin izan du euskarak ingurukoa ego-
kitze hori, latinetik hasi eta besteetatik segi.
Diglosia hor dago. Eragin hori hor dago eta ahale-
ginak egin behar dira gehiago ez urruntzeko.

A: Eta Matias jaunaren zaparrada hori?

G: Bai. Hor egia batzuk badaude. Gero nola admi-
nistratzen diren... Hori da bestea. Ni neroni ere ez
naiz oso optimista. Printzipioz, hipokresia eta
beste zera batzuk, nik uste, horrelaxe direla. Bere
aldetik ere ez dute garbi ikusten zer nahi duen...
moralajotze hori... nik behintzat lehendik ere ez
daukat oso altu...

*A: Eta Juanek eskuarte eta aukera balitu gusto-
koen duen hura egiteko, zertan ihardungo luke?*

G: Itzulpengintzan. Nik uste dut nere burua ez
dagoela erabat sorkuntza-lanera jartzetik.

Honetan bukatzen dugu gure tertulia. Bazuen
gauza gehiago esanik eta esatekorik Juanek;
baina non du lekua "kabira haundiko" gizon
honen guztia sartzeko

Udaran bere burua langabezian ikus dezakeenak,
hor du JOSKERA LANTEGI entretenitzeko. Egilea,
JUAN GARZIA GARMENDIA.